

Lan duina, zaintza duina.

Bizitzako momentu batean
edo bestean pertsona guztioi
egokitzen zaigu zaintzea
eta zainduak izatea.
Zaintza-lanak duintasunez
eta arduraz garatzea dagokigu
gizarte bezala.

Etxekolan infomazio, aholkularitza
eta bitartekaritza zerbitzua duzu eskura.





Ba al zenekien...?

Zaintza eta etxeko lanetan ari diren langileen...

% 36,89k ez du kontraturik.

% 83k osasun-ondorioak pairatzen dituzte lanaren ondorioz.

internek batez beste 64 ordu lan egiten dituzte astero eta legez dagokiena baino % 34,88 gutxiago kobratzen dute.

interna dauden langileen % 41i eta kanpokoek % 17ri ez zaie jaiegunik onartzen.

kanpokoek % 22ri eta internen % 28ri ez zaizkie oporrak onartzen.

Iturria:

- Biztanleria Aktiboaren Inkesta 2025eko 3. hiruilekoa (iraila) eta Gizarte Segurantzako afiliazioa etxeko lanean 2025eko irailean.
- Etxeko lana eta zaintzari buruzko lan-osasunari buruzko inkesta (2024). Eskubide guztiak dituen etxeko eta zaintzako enpleguaren aldeko plataforma.
- Gipuzkoako SOS Arrazakeriako etxeko langileentzako lan aholkularitza zerbitzuaren 2024ko txostena.
- EAEko biztanleria lurraldeka, herrialde talde eta nazionalitateen arabera 2024 (Eustat).

Erreterian 65 urte edo gehiago dituzten 9.589 pertsona bizi dira (biztanleen % 24,1)

Etxeko langile bat kontratatu behar duzu?

Sarritan, baldintza desegokietan kontratatzen dira etxeko langileak.

Etxeko lanaren esparruko lan-harremanak baldintza duinetan ezartzea onuragarri da zaintzailearentzat zein zainduarentzat.

Etxekolan zerbitzuak etxeko langileak baldintza duinetan kontratatu ahal izateko aholkularitza eskaintzen du ondorengo esparruetan:

- Kontrataziorako laguntzei buruz.
- Lan-harremanen inguruko zalantzetarako laguntza.
- Lan-eskaintzen kudeaketa eta hautaketa-prozesuetan laguntzea.
- Etxeko lan-arriskuen ebaluazioari buruzko formularioa betetzeko aholkularitza (derrigorrezkoa 2026/01/01etik).



Etxekolan

Informazio, aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua.

Aurretiko zitarekin:

OARSOLAN
Enplegu eta Inklusiorako
Berrikuntza Zentroa

Larzabal 31
Astelehenetik ostiralera, 8:00-14:30

Errenteriako
Emakumeen
Etxea

Txirrika parkea zk. g.
Ostegunetan, 15:00-17:00

Etxeko langilea zara eta ez dakizu nora jo informazio bila?



Etxekolan zerbitzuan lan-eskaintzetan parte hartzeko aukera izango duzu, eta prestakuntza eta kontratazioaren inguruko informazioa eta aholkularitza jasoko dituzu.

Halaber, gai hauei buruzko informazioa jasoko duzu:

- Lan eskubideak
- Formakuntzak
- Kontratazio baldintzak

Zaintza eta etxeko-lanetan ari diren pertsonen % 66a pertsona migratuak dira eta % 93a emakumeak.

Gipuzkoan 9.040 emakume daude etxeko langile gisa afiliatuak Gizarte Segurantzari. Horietatik 436 Oarsoaldean bizi dira.

SOS Arrazakerian honako hauek aurki ditzakezu

- Etxeko langileentzako lan-aholkularitza.
- Atzerriartasun gaitan aholkularitza.
- Etxeko langileentzako elkarguneak.
- Formakuntza eskubideetan.

trabajadoras.hogar@sosracismo.eu

658 749 756

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 18:00etara

Emakumeen Etxean honako hauek aurki ditzakezu:

- Laguntza psikologikoa.
- Emakume migratuentzako topagunea.
- Emakume zaintzaileen taldea.
- Ikasketen homologaziorako aholkularitza zerbitzua (Bidez Bide elkarteak).

emakumeenetxea@errenteria.eus

943 449 630



Etxekolan

Informazio, aholkularitza
eta bitartekaritza
zerbitzua.

Eskatu hitzordua:

943 510 200

Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:30etara

oarsolan@oarsoaldea.eus



Finantzatzaileak

